



PRENTSARAKO OHARRA

18/05/07

Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun diputatuak ezeztu egin dau Goihabe programaren bitartez emondako laguntzak bertan behera geratu diranik

Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun diputatuak goitik behera ezeztu dau Goihabe programaren bitartez lau erakunderi emondako laguntzak bertan behera geratu diranik. Berak eskatuta egindako agerraldiak, joan dan apirilaren 25eko Kontroleko Osokoa Podemos Bizkaia taldeak egindako salaketa bati erantzuten deutso.

Salaketa haretan Eneritz de Madariaga batzarkideak esan ebanez, Teresa Laespadak zuzentzen dauen sailak bultzatutako Goihabe programarako zuzkidurea ez zan heldu berau osotzen daben lau erakundeetara –Gurutze Gorria, CEAR-Euskadi, Cáritas eta Fundación Ellacuría– eta horrek “ondorio larriak” izan ditu laguntza horreen mende dagozan personengan. Laespada diputatu andrearen berbetan, esku hartze hori bidebakoa izan zan, eta azpimarratu dauenez, ez da egon “ezelango atzerapenik ordainketan, diru-laguntza publikoen bermerako administrazino prozedurea baino”. Horrez gain, azaldu dauenez, martiaren 7tik aurrera prestazinoa ordaindu ez izana komunikazino akats baten ondorioa izan da, baina “ez da ezelango eteterik egon”. Horrez gain, Laespadak esan dauenez, bere sailak dakien ez da kalean geratu, “holan gertatu izan balitz esku hartuko gendualako”.

Goihaberaren helburuakaz bat etorri arren, Eneritz de Madariaga Podemos Bizkaia taldeko batzordekideak funtsik ez eukitea aurpegiratu deutso Aldundiari, eta 2018an programa horretara zuzendutako partidak behera egin dauela kritikau dau, zuzkidurea osotuko leuken Diru-sarreraren Bermearen Legea onestearen menpe dagolako. De Madariagaren berbetan, “benetako kopuruak zeintzuk izango diran ez jakite” hori kaltegarria izan da erakundeentzat. Bitartean, ordezkari sozialistak gai hori “titular bat lortzeko ariete” moduan erabiltea aurpegiratu deutso Podemos Bizkaia taldeari, eta Euzko Abertzaleak taldeko batzordekideak galdetu dau sinisgarria ete dan “605 milioi euroko ondarea daukan” Gurutze Gorria moduko erakunde batean eragina daukanik askoz be txikiagoa dan zuzkidureak.

Talde Mistoaren bozeroaleak zalantzan jarri dau programaren eraginkortasuna, “hobetu daikela” azpimarratuz. Talde Popularra, barriz, pozik agertu da diputatuak emondako azalpenakaz. Bukatzeko, EH Bilduko ordezkariak, polemika gairatu eta programea errealidadera egokitu beharra transmitidu dau.

Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun diputatuak EH Bilduk egindako bigarren agerraldi eskariari be erantzun deutso 2017ko ekitaldian aurrera eroandako Genero Eraginaren Aurretiazko Txostenak (EPIG) ebaluetan dituan Txostenaren ganean. Aldundiko ordezkariak esan dauenez, txostenak emoten dauen balorazinoa positiboa da, hobetu daiteken arren.

Datu positibo horreek lau alderditan gauzatzen dira: generoaren ikuspegia sartzea Foru Aldundiko arauzko ekoizpenean; “EPIG horreek diranaren funtsa hobeto ulertzeko eta asmatzeko aukerea emoten daben” tutoretzak dituan metodologian; txostenetan ikusten diran gogoetatan; eta genero ikuspegiak, “daukan gaitasun pedagogikoa dala eta, beste administrazio tresna batzuetan sortzen dauen” integrazio ondorioan.

Batzordeko talde guztiek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzen dauen tresna dala esan dabe, baina Talde Popularrak eta EH Bilduk arlo horretan emoten diran aurrerapausuen moteltasuna azpimarratu dabe.

AHOZKO ERANTZUN-ESKEAK BATZORDEAN

Horrez gain, Teresa Laespada diputatuak EH Bilduk eta Podemos Bizkaiak planteautako ahozko hiru erantzun-eskeri erantzun behar izan deutse. Lehenengoan, EH Bilduk emantzipazioari laguntzeko prestazio ekonomikoaren nondik norakoaren ganean galdetu dau. Gai horri jagokonez, Aldundiko ordezkariak, garagarriean iragarriko dan Estrategia Gaztea jarriko dala martxan jakinarazo dau. Egoitza baliabide batean ez dagozan gazteak emantzipetako prozesurako laguntza ekonomikoa izango da, izan be, ez da bateragarria egoitza batean egoteagaz.

Beste alde batetik, Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun diputatuak, Podemos Bizkaia taldeak, egoitzen aldetik babesgabetasun- edo/eta bazterketa-egoeran dagozan emakumezkoentzako zorro dekretuko helburuak betetearen –zerbitzuaren konfesino ezaren ganean, hain zuzen be– eta JENAS kolektiborako zerbitzuen eskaria dala-eta, egoitza-baliabideetan eta prestazio ekonomikoetan gaur egun dagon eskaintza orekatzeko ekimenen ganeko beste erantzun-eske biri erantzun deutse. Lehenengo kasuan, Laespadak esan dau zentro guztiak Aldundiagaz sinatutako hitzarmenera egokitzen dirala eta hitzarmen hori beteten dabela. Bigarren galderari jagokonez, bere berbetan, prebentzioa eta esku-hartze zuzena behar daben gazteenganako arretea dira taldeen aurrean garagarriean aurkeztuko dan Estrategia Gaztearen oinarri izango diran helburu biak.

NOTA DE PRENSA

07/05/18

La diputada de Empleo, Inserción Social e Igualdad niega la suspensión de ayudas a través del Programa Goihabe

La diputada de Empleo, Inserción Social e Igualdad, Teresa Laespada, ha negado rotundamente la suspensión de ayudas otorgadas a cuatro entidades a través del Programa Goihabe. Esta comparecencia a petición propia responde a una acusación realizada por Podemos Bizkaia en el Pleno de Control del pasado 25 de abril.

En dicha acusación la apoderada Eneritz de Madariaga denunció que la dotación del Programa Goihabe, impulsado por el departamento dirigido por Teresa Laespada, no había llegado a las cuatro entidades que la conforman - Cruz Roja, CEAR-Euskadi, Cáritas y Fundación Ellacuría – causando “graves consecuencias” en las personas dependientes de esas ayudas. La diputada Laespada, quién ha definido como injusta esta intervención, ha asegurado que no ha habido “retraso en el pago sino procedimiento administrativo garantista de la legalidad de las subvenciones públicas”. Asimismo ha explicado que el hecho de que a partir del 7 de marzo no se abonara la prestación se debe a un error de comunicación, pero que “de ninguna manera a una suspensión”. Laespada además ha aseverado que a su departamento no le consta que ninguna persona se haya quedado en la calle, “porque en ese caso hubiéramos intervenido”.

A pesar de compartir los objetivos de Goihabe, la apoderada de Podemos Bizkaia Eneritz de Madariaga ha acusado a la Diputación de falta de fondos y ha criticado la disminución de la partida destinada al programa en 2018 al estar supeditada a la aprobación de la Ley de Garantía de Ingresos que complementaría la dotación. Este “desconocimiento de las cuantías reales”, según De Madariaga, ha supuesto un perjuicio para las entidades. Por su parte, mientras que el representante socialista acusaba a Podemos Bizkaia de utilizar esta cuestión como “ariete para conseguir un titular”, el apoderado de Nacionalistas Vascos preguntaba si verdaderamente una entidad como Cruz Roja “que tiene un patrimonio de 605 millones” puede verse afectada por la falta de una dotación mucho menor.

El portavoz del Grupo Mixto ha puesto en duda la efectividad del programa asegurando que “se puede mejorar”, a diferencia del Grupo Popular que se ha mostrado complacido con las explicaciones de la diputada. Por último, el representante de EH Bildu, más allá de la polémica ha transmitido la necesidad de adecuar el programa a la realidad.

La diputada de Empleo, Inserción Social e Igualdad, Teresa Laespada, ha respondido a una segunda petición de comparecencia por parte de EH Bildu en relación al Informe que evalúa los Informes Previos de Impacto de Género (EPIG) realizados a lo largo del ejercicio 2017. La representante foral ha asegurado que éste concluye con una valoración positiva aunque mejorable. Estos datos positivos se sustentan en cuatro aspectos: la integración de la perspectiva de género en la producción normativa de la Diputación Foral; su metodología con tutorías que “van permitiendo entender y acertar mejor en la esencia de los que son los EPIG”; en las reflexiones que van apreciándose en los distintos informes; y en el efecto de integración que la perspectiva de género “provoca en otras herramientas administrativas gracias a su capacidad pedagógica”.

Todos los grupos junteros han valorado ésta como una herramienta que asegura la igualdad entre mujeres y hombres, si bien Grupo Popular y EH Bildu han hecho hincapié en la lentitud en la que se avanza en este ámbito.

PREGUNTAS ORALES EN COMISIÓN

Asimismo, la diputada Teresa Laespada ha tenido que responder tres preguntas orales planteadas por EH Bildu y Podemos Bizkaia. En la primera de ellas EH Bildu ha preguntado acerca del desarrollo de la prestación económica de soporte a la emancipación. A este respecto la representante foral ha informado acerca de la puesta en marcha de la Estrategia Joven que anunciará en julio y que supone un apoyo económico para el proceso de emancipación de las personas jóvenes que no se encuentran en un recurso residencial, puesto que éste es incompatible con la estancia en servicio residencial.

Por otra parte, la diputada de Empleo, Inserción Social e Igualdad ha respondido dos preguntas más de Podemos Bizkaia sobre acerca del cumplimiento de objetivos del decreto de cartera por parte de centros residenciales para mujeres que se encuentran en situación de desprotección y/o exclusión social – en concreto la aconfesionalidad del servicio-, y sobre las actuaciones para equilibrar la actual oferta de recursos residenciales y prestación económica a la demanda de servicios para el colectivo de JENAS. En el primer caso Laespada ha asegurado que todos los centros se ajustan y cumplen el convenio firmado con la Diputación. En cuanto a la segunda pregunta ha definido la prevención y la atención a jóvenes que requieren una intervención directa como los dos objetivos que sustentarán este Estrategia Joven que presentará ante los grupos en julio.